

2012/03/27(e)ko saioa

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

185.604 euroko dirulaguntza ikastetxeentzat hitzartutako unitateak murrizteak eragindako kalteak arintzeko

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

Eusko Jaurlaritzak abian jarri du alokairuko etxebizitzetarako Bitartekaritza Programa, etxebizitzak merkatu librean baino merkeago alokatzeko

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Euskal saltokiek guztira 1,5 milioi euroko laguntzak jaso ditzakete beren negozioetan kalitatea ezartzeko

810.000 € behatoki estrategiko sektorialentzat euskal enpresen lehiakortasuna bultzatzeko

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Nekazaritza eta abeltzaintzarako Ordainketa Bakarrerako eta Europako erkidegoko zuzeneko bestelako laguntzetarako 53.000.000 euroko gastua baimendu da

Euskal Autonomia erkidegoko Arrantzako Aholku Batzordea eratzen duen Dekretua onartu da

85.000 euroko diru-laguntza onartua latxa eta karrantzako ardien hautaketa zentroan berrogeialdi nabe bat eraikitzeko

Nekazaritza eta Elikadura Batzordearen eta Kontseiluaren egikizunak eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretua onartu da

KULTURA SAILA

Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programaren 2012ko deialdia

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

185.604 euroko dirulaguntza ikastetxeentzat hitzartutako unitateak murrizteak eragindako kalteak arintzeko

Erabakia, 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan hitzartutako unitateak gutxitzeak ukitutako ikastetxeei diru-laguntza zuzenak emateari buruzkoa, Administrazioa, Euskadiko Irakaskuntza Pribatuko Enpresarien Elkarte eta Erakunde Sindikalen arteko 1997ko ekainaren 5eko Akordioa betetzeko

EAEko Administrazioaren eta Irakaskuntza Pribatuko erakunde patronalen eta sindikatuen artean 1997ko ekainaren 5ean hartutako Akordioa aplikatuz - 2010/2011 eta 2011/2012 ikasturteetan hitzartutako unitateak murrizteak eragindako ikastetxeei buruzkoa, alegia- Gobernu Batzordeak ikastetxeei 185.604 euroko dirulaguntza ematea erabaki du gaur.

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

Eusko Jaurlaritzak abian jarri du alokairuko etxebizitzetarako Bitartekaritza Programa, etxebizitzak merkatu librean baino merkeago alokatzeko

Dekretua, Merkatu Libreko Etxebizitzak Alokatzeko Bitartekaritza Programa sortzeko dena (AAP Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa)

Diru sarreren muga 39.000 euro izango da.

Udalerrriaren arabera 400 eta 650 euro bitarteko errenta ordainduko da.

Gobernu Kontseiluak onetsi duen dekretu baten bidez etxebizitza librean alokairuaren merkatuko Bitartekaritza Programa sortu da (ASAP, Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), etxebizitza pribatuak neurrizko prezioetan alokatu daitezzen.

Programa berriaren bitartez aukera eman nahi da etxebizitza pribatuak alokairuen merkatuan sar daitezzen, errentarientzat arrazoizkoa izango den prezioan. Horretarako, Etxebizitza Sailak jabeei bermatu egingo die errenta kobratuko dutela, defentsa juridikoa izango dutela eta kalteak konponduko zaizkiela, kontingentzia horiek estaliko dituzten aseguru polizak kontratatuz.

Jabeei eskaintzen dizkien bermeen trukean Eusko Jaurlaritzak alokairuen gehieneko prezioak finkatuko ditu, eta merkatu librekoak baino prezio txikiago eta lehiakorragoak izango dira. Horrela, euren inguruabar sozioekonomikoengatik merkatu libretik kanpo geratzen diren etxebizitza-eskatzaileek alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago izango dute.

Eusko Jaurlaritzak, programa bideratzeko, agente laguntzaile gisa jardungo duten bitartekari homologatuen sarea sortu du.

Udalerrriaren arabera 400 eta 650 euro bitarteko errenta ordaindu beharko da. Urtean 7.000 eta 39.000 euro bitarteko diru sarrera ponderatuak dituzten pertsona guztiek alokatu ahal izango dituzte horrelako etxebizitzak.

Maizterrak

Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribaturiko pertsonak Programako eskatzaile bihurtuko dira besterik gabe, alokairuko etxebizitza eskatzen badute eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Errentamendu kontratua egiten den eguna baino bi urte lehenagotik, inongo etxebizitzaren jabetzarik, azalera eskubiderik edo gozamen eskubiderik ez izatea. Alde batera utziko dira babes ofizialeko etxebizitzari buruzko araudiek aurreikusitako salbuespenak
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egon bera edo, gutxienez, bizikidetza-unitateko kideetako bat.
- c) Urtean 7.000 eta 39.000 euro bitarteko diru sarrera haztatuak izatea, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 38/2009 Dekretuaren 23. artikulua, edota horren ordezko araudian aurreikusitakoarekin bat etorrira.
- d) Etxebizitzaren errentak ez dezala bere urteko diru-sarrera haztatuen %30 gainditu.

Programan parte hartu nahi duten pertsona fisikoek edo bizikidetza-unitateek izena eman behar dute Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan. Programako etxebizitza bati uko eginez gero, Erregistroko inskripzioa kendu egingo da, erregistroaren arauak diona errespetatuz.

Lehentasun irizpideak

Lehentasun irizpide hauek erabiliko dira:

- a) Bizikidetza unitatearen urteko diru sarrera ponderatuak egokiak izatea etxebizitzak duen errentarako.
- b) Zein udalerritako etxebizitza eskatzen den.
- c) Etxebizitzaren ezaugarriak egokiak izatea bizikidetza unitateko kideen kopururako.
- d) Antzinasuna, hau da, eskatzailea noiztik dagoen inskribatuta Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan.

Etxebizitza Sailak etxebizitza-eskatzaileen zerrenda egingo du lehentasun irizpideen arabera hurrenkeran, eta bide telematikotatik agente laguntzaileei bidaliko die, euren jardueraren lurralde eremuaren arabera.

Etxebizitzaren baldintzak

Programan sartu ahal izateko, etxebizitzek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Inolako babes publikorik ez izatea.
- b) Lehenengoz okupatzeko lizentzia edukitzea.
- c) Egituraren eta eraikuntzaren egokitasunari eta bizitzeko egokitasunari buruzko baldintza orokorrak betetzea.
- d) Txukun eta garbi egotea.
- e) Sukaldea eta bainugelak altzariz hornituta edukitzea.
- f) Ez egotea lehendik alokatuta, ez okupatuta, eta alokatzea eragotziko lukeen bestelako mugarik ere ez izatea.
- g) Sailaren iritiz alokairuko etxebizitzaren eskari nahiko handia dagoen udalerrri edo eskualde batean egotea.

Jabeen betekizunak

Jabeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, besteak beste:

- a) Etxebizitzaren kudeaketa osoa etxebizitzaren ardura hartu duen agente laguntzailearen esku uztea; tartean, errentamendu kontratuetakoko fidantzak gordailutzeko eta berreskuratzeko kudeaketa.
- b) Agente laguntzaileari ordainsaria ematea:
 - 1) Etxebizitzaren lehenengo errentamendu kontratuko hileko errenta bat. Ordainsari hori kontratua sinatzen den unean bertan sortuko da.
 - 2) Lehen kontratuaren ostean etxebizitza lehengo maizter berari alokatzeko egiten diren errentamendu kontratuetakoko bakoitzean, hileko errenta baten erdia. Ordainsari hori ere kontratu bakoitza sinatzen den unean sortuko da.
 - 3) Lehen kontratuaren ostean etxebizitza beste maizter bati alokatzeko egiten diren errentamendu kontratuetakoko bakoitzean, hileko errenta bat. Ordainsari hori ere kontratu bakoitza sinatzen den unean sortuko da.
 - 4) Komisio bat, gehienez ere errentaren ehuneko hiru. Ordainsari hori hilero sortuko da kontratuak indarrean dirauen bitartean.

Agente laguntzaileak

Eusko Jaurlaritzaren agente laguntzaileek ondoko baldintza hauek bete behar dituzte, besteak beste, homologazioa lortzeko:

- a) Higiezinaren jabetzako agentea izatea edo, bestela, pertsona fisikoa edo legez eraturako pertsona juridikoa izatea, arlo horretako inolako titulurik ez duena eta inongo elkargo ofizialetako kide ez dena baina Higiezinaren eta Garraioaren Sektoreetako Presako Liberalizazio Neurriei buruzko maiatzaren 20ko 10/2003 Legearen 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituena higiezinaren arloko bitartekotzan aritzeko.

- b) Jarduera horretan gutxienez 5 urte egin direla frogatzea.
- c) Establezimenduren bat edukitzea jendearentzat zabalik, irisgarritasuna bermatzen duena.
- d) Erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea jarduerarako, gutxienez urtean 600.000 euroko estaldura duena.

Eginkizunak:

Agente laguntzaileek eginkizun hauek izango dituzte, besteak beste:

- a) Programari buruzko argibideak ematea jabeen nahiz errentariei, eta Eusko Jaurlaritzak errentamenduaren sustapenerako laguntza publikoen gaineko informazioa emateko antolatzen dituen ekintzetan laguntzea, eta horien tramitazioa erraztea hala behar denean.
- b) Jabeen eta errentarien arteko kontratuak sinatzen direnean bitartekari lanak egitea.
- c) Errentamendu harreman egokiak ahalbidetzea, eta kontratuaren iraunaldian sortzen diren gatazketan adostasuna bilatzeko bitarteko gisa aritzea, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren lurralde ordezkariak eskaintzen dituzten doako zerbitzu publikoak lehentasunez erabiliz.
- d) Programarako etxebizitza libreak ekartzea.
- e) Etxebizitzak programan sartu ahal izateko egokitze obrak egin daitezela proposatzea eta amaitutakoan obra horiek ikuskatzea.
- f) Etxebizitzaren egoeraren inbentario osoa egitea, jabeen egoera berean itzuliko zaiola bermatzeko.
- g) Errentamendu kontratuaren fidantzak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren lurralde ordezkarietara gordailutzeko eta handik berreskuratzeko kudeaketak egitea errentatzaileen izenean.
- h) Programarako ekartzen dituen etxebizitzak kudeatzea, berak bakarrik.
- i) Alokairu zikloren bat izan duten etxebizitzak kasuan, berriro okupatu daitezkeen ahalegintzea.
- j) Etxebizitza bakoitza balizko errentariei erakustea, Sailak igorritako zerrendan ezarritako lehentasun hurrenkerari hertsiki jarraituz, harik eta pertsona edo bizikidetzaren batek etxebizitza onartu arte.
- k) Errentamendu kontratuari dagozkion zergen likidazioa tramitatzeko kudeaketak egitea.
- l) Kontratua amaitutakoan errentariak etxebizitza borondatez uzten duenean, etxebizitza berreskuratzea.
- m) Errentamendu kontratua amaitutakoan etxebizitza ikustera joatea, nola dagoen ebaluatzeko, inbentarioa egiaztatzeko eta kalterik badagoen begiratzeko, eta txostena egin ondoren fidantza osoa itzultzea, errentatzaileak berriaz baimena emanda, edo bestela fidantzaren zati bat itzultzea, kalteak konpontzeko eta inbentarioa lehengoratzeko kostuak deskontatu ondoren, edo fidantza osoa atxikitzea.

Sailak behar diren aseguru polizak kontratatuko ditu. Hauek izango dira gutxieneko kapital aseguruak:

a) Edukiztailea: 50.000 euro lehen arriskurako

b) Edukia: 10.000 euro

c) Erantzukizun zibila: 180.000 euro

Aseguru polizen primak 2012an eta 2013an ordaintzeko 761.094 euroko aurrekontu-kreditua sortu da.

Programan onartuko diren gehieneko errentak honakoak dira:

| Etxebizitza babestuen gehieneko prezioen zonak | Bitartekaritza Programako gehieneko errentak hilean |
|---|--|
| Donostia | 650 |
| Bilbo/Gasteiz | 600 |
| <p>Araba: Audio,</p> <p>Bizkaia: Amorebieta, Barakaldo, Basauri, Berango, Bermeo, Bilbo, Durango, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxo, Leioa, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Sopelana.</p> <p>Gipuzkoa: Andoain, Arrasate, Astigarraga, Eibar, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Tolosa eta Zarautz.</p> | 550 |
| <p>Araba: Agurain, Amurrio, Oion.</p> <p>Bizkaia: Abadiño, Abanto Zierbena, Alonsotegi, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Bakio, Balmaseda, Barrika, Berriz, Derio, Elorrio, Etxebarri, Gorniz, Güeñes, Igorre, Iurreta, Larrabetzu, Lekeitio, Lemoa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Markina-Xemein, Muskiz, Ondarroa, Urduña, Ortuella, Plentzia, Sondika, Ugao, Urduliz, Trapagaran, Zaldibar, Zalla, Zamudio, Zaratamo, Zeberio, Zierbena, Ziortza-Bolibar.</p> <p>Gipuzkoa: Aretxabaleta, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Bergara, Deba, Elgoibar, Eskoriatza, Getaria, Ibarra, Lazkao, Legazpia, Oñati,</p> | 475 |

| | |
|---|-----|
| Ordizia, Orio, Soraluze, Urnieta, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zestoa, Zizurkil, Zumaia, Zumarraga. | |
| Gainerako udalerriak | 400 |

Egitarau hau 2018ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Euskal saltokiek guztira 1,5 milioi euroko laguntzak jaso ditzakete beren negozioetan kalitatea ezartzeko

Ebazpena, 2012ko martxoaren 28koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena; honen bitartez, merkataritza banaketaren sektorean berrikuntza eta bikaintasuna garatzera bideratutako 2012ko ekitaldirako laguntzen deialdia iragartzen da.

2010. urtetik aurrera, merkataritzako bikaintasunaren aldeko apustua egiten ari da Eusko Jaurlaritza, eta bi urtean Euskadiko 19 saltokik kalitatezko Q-a lortu dute bi kategoria desberdinetan: 12 Q urdin eta brontzezko 7 Q.

Euskadiko 300 saltoki baino gehiago gogor ari dira lanean bikain izateko.

Gainera, 2011n 538 saltoki berrik "Bezeroari arreta saltokian emateari" buruzko UNE 175001 araua lortu zuten, merkataritza bikaina programaren alde aurreko urrats gisa. Orain arte sektoreak lortutako % 25 baino gehiago da hori, kalitateari lotutako 2000 saltokiko zifra gaindituta.

Saltokietarako laguntzek 1.000 eurotik 4.000 eurora bitarteko zenbatekoa dute, lortutako bikaintasun-mailaren arabera.

Gobernu-kontseiluak 1,5 milioi euroko laguntzak onartu ditu gaur, merkataritzan bikaintasuna eta berrikuntza garatzeko. 2010. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritza merkataritza-bikaintasunaren aldeko apustua egiten ari da. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza programaren bitartez, Euskadiko saltokiak kalitate-prozesuetan txerta daitezke. Laguntza horiei esker, bi urtean Euskadiko 19 saltokik kalitatezko Q-a jaso dute, bi kategoria desberdinetan: 12 Q urdin eta brontzezko 7 Q.

Gainera, 2011n 538 saltoki berrik "Bezeroari arreta saltokian emateari" buruzko UNE 175001 araua lortu zuten, merkataritza bikaina programaren alde aurreko urrats gisa. Orain arte sektoreak lortutako % 25 baino gehiago da hori, kalitateari lotutako 2.000 saltokiko zifra gaindituta.

2010. urtean, Eusko Jaurlaritzak apustu irmoa egin zuen merkataritza-sektorean hobekuntza jarraituko prozesuak bultzatzeko, industria-sektorearen lorratzari jarraiki. Horretarako, Merkataritza Bikaina

programa sortu zuen, sektorearentzat aitzindaria eta saltoki txiki eta ertainentzat bereziki prestatua. Metodo erraz baten bitartez eta merkataritzan adituak diren hainbat tutore prestatzailearen balio handiko laguntzarekin, euskal saltokien benetako emaitzen hobekuntza ahalbidetzen eta bultzatzen du Merkataritza Bikaina programak.

Saltokietarako laguntzek 1.000 eurotik 4.000 eurora bitarteko zenbatekoa dute, lortutako bikaintasun-mailaren arabera.

EAEko hiru lurraldeetan ordezkari gehien dituzten Merkataritza Elkarteak eta Merkataritza Ganberak dira kalitate-programa horien onuradunak. Guztiek ere merkataritza-banaketako enpresa txikiak bultzatzen dituzte ziurtapen-prozesuan. Era berean, kalitatea sustatzeko fundazioek parte hartzen dute prestatzaile eta ebaluatzaileak balidatuz, Bikaintasun-proiektuak baloratuz eta, Merkataritza Zuzendaritzarekin batera, programaren jarraipena eta koordinazioa eginez.

Merkatari-elkarteek eta horien federazioek ere jaso ditzakete laguntzak, baita merkataritza- eta industria-ganbarek ere, enpresa-lehiakortasuna hedatzeko eta sustatzeko.

Eusko Jaurlaritzak saltokietan kalitatea ezarri nahi du, alde batetik, sektorea kontzientziatzeko bere enpresetan etengabeko hobekuntzako prozesuen aldeko apustua egitearen garrantziaren inguruan, eta, bestetik, Euskadiko kontsumitzaileen aurrean balioan jartzeko merkataritza egiten ari den ahalegina egunero lehiakorragoa izateko, eta zerbitzu hobea eta bezeroekiko arretatsuagoa eta adeitsuagoa eskaintzeko.

810.000 € behatoki estrategiko sektorialeentzat euskal enpresen lehiakortasuna bultzatzeko

Ebazpena, 2012ko martxoaren 28koa, Kabinete, Plangintza eta Estrategiako sailburuordearena, Behatoki Estrategiko Sektorialeiei 2012ko ekitaldirako diru-laguntzak emateko deialdia argitaratu ematen duena.

Kluster eta aurrekluster sektorialetarako tresna dira behatokiak, haien lehiakortasuna hobetzeko baliagarriak direnak eta zeregin nagusizat haien jarduera berritzailea sustatzea dutenak.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak zertxobait gehitu du Behatoki Estrategiko Sektorialeentzako aurrekontua klusterren hazkunde lehiakorra indartzeko.

Eusko Jaurlaritzak 810.000 euro emango dizkie aurten Behatoki Estrategiko Sektorialeiei, iazkoa baino diru-kopuru zertxobait handiagoa, hain zuzen ere. Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu du Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburu Bernabé Unda jaunaren Agindu bat, Behatoki Estrategiko Sektorialetarako 2012ko ekitaldirako laguntzak iragartzen dituena.

Kluster eta aurrekluster sektorialek beren lehiakortasuna hobetzeko duten elementuetako bat dira behatoki horiek, eta haien jarduera berritzailea sustatzea dute zeregin nagusizat.

Behatoki horien eginkizunek lan garrantzitsuak biltzen dituzte, hala nola euskal enpresaren jakintza-premiak identifikatuko dituen laguntza-sistema bat sortzea edo erabakiak hartzeko prozesua hobetuko duen edozein informazio estrategiko lortzen laguntzea.

Laguntzen zenbatekoa, orokorrean, honako jardura hauen azpikontratazioetatik eratorritako gastuen % 80 finantzatzeko da, eta betiere 48.000 euroko mugarekin:

- sektoreko enpresen edo kluster-elkarteen berrikuntza-premiak identifikatzea.
- lortu nahi diren helburuetarako izaera estrategikoko informazio-edukiak lortzeko, tratatzeko, aztertzeko, sortzeko eta hedatzeko jarduerak.
- enpresetan adimen lehiakorra sustatzeko eta haiekin dinamizatzeko jarduerak.
- egitura nuklearrak egindako jarduerak, dagozkien zuzendaritzarekin eta koordinazioarekin, sarean funtzionatzeko.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak euskal enpresen antolamendu-ereduaren aldeko bere apustuari eutsi nahi dio. Zenbait herrialdetan aurkeztu dute eredu sailburuak eta Plangintza eta Estrategiako zuzendariak, jarraitu beharreko eredu gisa. Eusko Jaurlaritzak uste du egitura horiei emango zaien bultzadak buruan jarriko duela euskal enpresen sarea lehiakortasunari dagokionez. Kontuan hartu behar da baliagarriak izango direla, halaber, enpresen modernizazioa eta haien ahalmen berritzaile eta sortzailea indartzeko, eta hori horrela, Euskadi Ekonomia Berritzaile, Ekintzaile eta Teknologikoki Aurreratua bihurtzeko helburua finkatuko da.

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Nekazaritza eta abeltzaintzarako Ordainketa Bakarrerako eta Europako erkidegoko zuzeneko bestelako laguntzetarako 53.000.000 euroko gastua baimendu da

Erabakia, nekazaritzari eta arrantzari EBren "ordainketa bakarreko" laguntzen erregimenak eta laguntza zuzenen beste erregimen batzuk finantzatzeko 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzeko dena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 53.000.000 euroko gastua onartu du gaurko bileran 2012an nekazaritza eta abeltzaintzarako Ordainketa bakarreko Europako erkidegoko laguntzen erregimena eta zuzeneko bestelako laguntza-erregimenak gauzatzeko.

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio Pilar Unzaluren proposamenari, baimena emanez 2012ko ekitaldian guztira 39.000.000 euro bideratzeko Ordainketa Bakarrera (lotu gabekoa), 8,5 milioi Lotutako Ordainketara, eta 5,5 milioi beste laguntza espezifikoko batzuetara.

Laguntza horiek guztiak Nekazaritzaren Europako Berme Funttsaren (NBEF) kargura finantzatzen dira, eta baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak ordainketa egiten du.

Ekitaldi honetarako aurreikuspena da Ordainketa Bakarraren bitartez (loturarik gabe produktu baten produkzio espezifikoarekin) guztira 10.774 nekazari edo abeltzain onuradun izatea, eta guztira 124.816 eskubide ordaintzea; eta, Lotutako Laguntzen bitartez (behi inudea eta azukre-erremolatxa) 7.795 nekazari eta abeltzain onuradun izatea, eta guztira 51.080 Azienda Unitate Larri (AUL) babestu eta 115.029 hektarea onartu izatea.

Bestalde, Kontseiluaren 2009ko urtarrilaren 19ko 73/2009 Erregelamenduaren (EE) 68. artikulua aplikatuz, laguntza espezifikoa ematen dira tabako, azukre, haragi-behi, lekale, behi inude, ardi-ahuntzen edo produkzio sektoreetan eta esnearen sektorean.

Gaurko bileran ere Pilar Unzalu sailburuaren Agindua jakinarazi da, eta horren bitartez 2012ko kanpainarako laguntzen deialdia egiten da eta egokitzen dira, adierazitako zenbatekoarekin.

Euskal Autonomia erkidegoko Arrantzako Aholku Batzordea eratzen duen Dekretua onartu da

Dekretua, Arrantza arloko Aholku Batzordea sortzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaurko bileran Arrantzako Aholku Batzordea eratzen duen Dekretua onartu du, eta organo hori beren jardura arrantzaren esparruan garatzen duten gizarte-sektore guztien partaidetzarako gune bat da.

Arrantzako Aholku Batzordearen funtzioen artean dago sektorean eragina duten alderdiei buruzko txostenak lantzea; arrantzaren arloko proposamenak eta gomendioak egitea dagokion erakunde, administrazio eta agenteei; eta, hausnarketarako aurkeztu diren alderdiei buruz aholkatzea.

Batzordea honako erakunde hauetako ordezkariak osatuko dute: Eusko Jaurlaritza, Hazi, Azti-Tecnalia edo Elika, Euskadiko Kirol Portua SA, Arrantzale Kofradien Federazioak, OPAO, armadoreak, arrain-handizkariak eta txikizkariak, kontserba-enpresak, merkataria eta merkaturatzaileak, sektoreko sindikatu adierazgarriak, saregileak eta neskatilak, edo kontsumitzaileen elkarteak.

85.000 euroko diru-laguntza onartua latxa eta karrantzako ardien hautaketa zentroan berrogeialdi nabe bat eraikitzeko

Erabakia, koarentena-instalazio berri bat eraikitzea finantzatzeko Ardiekin SLri diru-laguntza zuzena emateko dena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, gaurko bileran, Latxa eta Karrantza arrazetako ardien intseminazio eta hautaketarako zentroari zuzenean 85.000 euroko laguntza ematea onartu du berrogeialdi-instalazio berri bat eraikitzeko.

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio Pilar Unzalu sailburuaren proposamenari, zuzeneko laguntza hori Ardiekin SL hautaketa-zentroari emanaz. Euskadiko Latxa arrazako ardien hiru abeltzain-elkartek (ACOL, AGORALA eta ELE) sozietate horretako bazkide dira.

Batzordearen martxoaren 2ko 176/2010 zenbakiko Erregelamenduak (EE) baldintza batzuk ezartzen dizkie hautaketa- eta intseminazio-zentroei baimen jakin batzuk eta al baitariaren ziurtagiria lortzeko, eta baldintza horien artean biltzen da jarduera garatzen duten lekuan berrogeialdi-instalazio bat izan behar dutela, sartu berri diren arkumeak bakarrik hartzen dituena, osasun-egoera berbera izan dezaten.

Horretaz gain, erregelamendu horrek nahitaezkoa egiten du nabea eraikia edo isolatua egotea, kanpoan dauden abereekin kontaktua guztiz saihestuz, eta, beraz, baimenik gabeko edozein pertsona sartzea eraginkortasunez eragotziz. Era berean, animalien garraiorako kamioientzako sarrera independente bat izan behar du.

Baldintza horiek betetzeko, ezinbestekoa da kokapen berri batean berrogeialdi-instalazio berri batentzako inbertsioa egitea, eta, beraz, premiazkoa da 340 m²ko nabe bat eraikitzea, gaur onartutako zuzeneko laguntzaren xede bakarra hori izanik.

Ardiekin SL enpresaren xedea da hautaketa eta hobekuntza genetikoa eta Latxa eta Karrantza arrazetako ugalketarako ardirik onenak hedatzea, Euskadiko arraza autoktonoak izanik. Esnerako gaitasuna duten arraza horiek eta lortutako esnea gazta egitera bideratzen dira, eta gazta nagusiki Idiazabalgo Jatorri Deiturara bideratzen da.

Arraza horietako ardien hobekuntza genetikorako programa arraza puruko hautaketa-helburu batean oinarritzen da, nagusiki esnearen kantitatea eta kalitatea handitzeko.

Nekazaritza eta Elikadura Batzordearen eta Kontseiluaren egikizunak eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretua onartu da

Dekretua, Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluaren eta Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordearen egitekoak eta jarduera-araubidea zehazteko dena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Kontseiluaren eta Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordearen eginkizunak eta funtzionamendua ezartzen dituen Dekretua onartu du gaurko bileran.

Euskadiko **Nekazaritza eta Elikadura Kontseilua** sektore-eragile esanguratsuenekin euskal nekazaritza-administrazioen entzunaldiko, koordinazioko, kontsultako eta aholkularitza teknikoko organo bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikadura-politiken diseinurako.

Kontseiluak sektore horretarako interesgarritzat jotzen diren gai guztiak eztabaidatu ditu, hala nola Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) erreformak, plan estrategikoak eta sektorialak, Batzordetik igortzen zaizkion dokumentuen gainean edo Kontseiluak berak erabaki bat hartu eta bere jarrera ezarri nahi duen bestelako gaien gainean, gero Batzordera igortzeko.

Kontseiluaren presidentea Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburu Pilar Unzalu andrea izango da, eta Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta Eudelen ordezkariak izango ditu. Era berean, ordezkariak izango dute nekazaritzako erakunde profesionalak, ekoizleenak, nekazaritza- eta elikadura-industriak, Basogintza Konfederazioak, Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Federazioak, eta nekazaritza-ustategiei aholkularitzako emateko baimendutako erakundeak.

Bestalde, **Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordea** Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde arteko organo bat da, nekazaritza- eta elikadura-politikak diseinatuko dituena, eta gai horien inguruko jardun-proposamenak, planak eta programak landuko dira bertan.

Batzordeak azpisektoreko planak eta programak diseinatu, eztabaidatu eta onartzen ditu, baita sustapen-neurriak ere; euskal nekazaritza-administrazioek batera agintzen dizkieten jardunak koordinatzen ditu; bere jarrera adierazten du Nekazaritzako Politika Bateratuan egindakoaren moduko erreformen aurrean; edo, osasunaren, klimaren edo merkatuen krisialdiek eragindako aparteko edo premiazko jardunak diseinatu eta onartzen ditu.

Batzordearen presidentea Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburu Pilar Unzalu andrea izango da, eta Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundien ordezkariak izango ditu.

KULTURA SAILA

Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programaren 2012ko deialdia

Agindua, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako aurtengo deialdia egiteko dena.

Gobernu Kontseiluak Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren 2012ko deialdia egiten duen Kulturako sailburuaren Agindua onartu du. Agindu horren bidez, 21 eta 30 urte bitarteko 100 pertsona (gehienez) hainbat herrialdetara joan ahal izango dira lankidetzaproiektuetan parte hartzera. Hautatutako gazteak eta proiektuak Kulturako sailburuak 2011ko abenduaren 13an emandako Aginduaren bitartez aukeratu dira (Kulturako sailburuaren 2011ko abenduaren 13ko Agindua, garapen-lankidetzarako entitateei dei egiten diena Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2012ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako proiektuak aurkezteko).

Programaren helburua da Euskadiko gazteen artean elkartasunaren balioa sustatzea eta garapen-lankidetzarako ekintzetan sentsibilizatzea. Hori dela eta, Euskadiko gazteak lankidetzaren kontzeptura hurbiltzeko helburuari eutsiko zaio, bai eta ekintza horiek bertatik bertara ezagutzeko aukerari ere. Esperientzia hori aberasteko eta osatzeko, informazio eta orientazio jardunaldiak antolatuko dira.

Bidaia-gastuetarako eta, hala badagokio, hautatutako pertsonak destinoko herrialdean sartzeko bisaren gastuetarako programa honek 2012ko ekitaldirako guztira duen gehieneko zenbatekoa 155.000 eurokoa da. Zenbateko hori handitu egin ahalko da agindu honen Xedapen Gehigarrian zehaztutakoaren arabera.